

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Behaketan eta galdera gidatuetan oinarrituta, zenbakien ezaugarriak arakatu eta ziurtatu, eta horrez gain, zenbaki horiek matematikaz gaidiko alorretan egindako ekarpena adierazi eta haren baliagarritasuna balioetsi.</p>	<p>1.1. Eguneroko bizitzako egoeretan zenbakien bidez adieraz daitezkeen erlazioak arakatu ditu, neurrien arteko proportzioak aztertu ditu eta proportzio horien ezaugarriak bereizi ditu.</p> <p>1.2. Zenbaki motak modu egokian identifikatu, sailkatu eta izendatu ditu.</p>
<p>2. Berreketa eta erroketa alderantzizko eragiketa gisa erlazionatu eta haiekin eragiketak egin, adierazpenak eraldatu.</p>	<p>2.1. Berreketen propietateak ezagutzen ditu eta adierazpen konplexuak sinplifikatzeko erabiltzen ditu.</p> <p>2.2. Idazkera zientifikoko arauak zuzen aplikatzen ditu eta hauen eragiketak zuzen burutzen ditu.</p> <p>2.3. Erroketa-berreketa eragiketak definizioaren bitartez eraldatzen ditu.</p> <p>2.4. Erroen arteko eragiketak kalkulatu ditu: batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa, berreketa eta erroketa.</p> <p>2.5. Era guztietako emaitzak sinplifikatu ditu.</p>
<p>3. Arrazoiketa matematikoaz baliatuz, segiden ezaugarriak identifikatu eta haien adierazpen aljebraikoak idatzi, eta, alderantziz, segiden adierazpen aljebraikoak eraldatu informazio berria sortu.</p>	<p>3.1. Segidaren adierazpenak eraldatu ditu (testua/gaiez gai/gai orokorra) eta joerari dagokionez sailkatzen ditu.</p> <p>3.2. Progresio aritmetikoen eta geometrikoen formulaz baliatzen da informazio berria erdiesteko eta problemak ebazteko.</p> <p>3.3. Ekonomiarekin erlazionatutako problemak ebazteko: interes sinplea eta konposatua.</p> <p>3.4. Hizkuntza eta sinbologia matematikoa zuzen erabili ditu.</p>